

Gure txitxiñak



2015eko Urruzuno literatur sariak.

Karmele Garatea “Ordua da” eta
Ainhoa Gojenola “Azken hatsa” prosa atalean,
Olatz Martiartu “Maite nau” poesia atalean.

GADUS MORHUA

Gadus Morhua. “Cod” izenez ezagutzen da ingelesen artean eta frantsesek “Morue” deitzen omen diote. Italiarren nahiago dute “Merluzzo” deitu eta portugaldarrek “Bacalhau” deitura jarri diote. Euskaldunok makailaoa.

Gure planeta urdina izen horrekin ezagutzera eramaten gaituen lekuan bizi diren makailao guztien artean, bada Maritxu deituko den bat. Maritxu bere arrautza osatzen zuen olioak lagunduta, itsas azalean mantentzen izan da. Orain ordea, itsas hondoa aurkitzen da, goialdean zeukana berriz ez ikustearen presioaren ondorioz, goibel. Itsasoak “Cod” aren arrautzaren gainean sortutako presioak itsututa.

Izan ere, Maritxuk oraindik ez daki bera bezalako beste “Morue” batzuekin elkartzean, bere ametsetako goialde horretako izakien berri izango duenik. “Merluzzo” horiek, izaki erraldoi horiei eduki beharreko beldurraz jakinaraziko dute, hausnartaraziko dute.

Zoritxarrez, Maritxuri bere lagun “Bacalhau”ek inoiz ez diote esango bere izen bereberko Homo sapiens sapiens bat ilusioz beteriko marrazkian begi txiki eta aho handiko Gadus Morhua bat marrazten ari denik bere aita arrantzalea itsasoan dela alaba buruan izan eta bihotzean gorde dezan, be-raiek ere ez baitakite. Maritxu umeak ere ez daki gaurkoari jarraitzen dion egun batean, bere marrazkiko lagunak eta aitak lehia bizian diharduko dutenik. Elkarri begietara begiratzea helduko dira eta etorkizuneko momentu horretan gertatutakoren inguruan bakoitzak bere ipuina asmatuko du, arrantzale eta makailao narratzaile bihurturik.

Karmele Garatea



Olatzek aurten be irabazi egin dau. Karmelek eta Ainhoak ihaz lehenian be irabazi eben. Lekeittiarrak izango ete dira epailiak?





“Cabeza y dos manos”
Oswaldo Guayasamín.

ITSASOARI BEGIRA

Itsasoaren usainak gomutarazten dizkidan oroitzapenetan murgildurik ematen ditut orduak herriko kaian eserita. Uraren zurrumurrua entzun bitartean inoiz ahaztea ezinezkoak egingo zaizkidan momentuak gogoratuz. Behinola ene lagunik maiteena izan zen hark barrenean sortarazten didan zurrunbiloa ezin lasaituz. Itsasoaren beldur zen amaren begiak kaian aurkitzeak eman ohi zidan sentsazioak ene bihotza apur bat gehiago tristatuz. Egunetik egunera nostalgiaren labirintoan harrapatua den preso bilakatuz, itsasoak ene zeldako giltzak gero eta urrunago ezkutatzten dituela jakin badakien preso.

Gogoan dut itsasora joan nintzen lehen aldia. Aurretik ere egunero ikusten nuen; hala ere, oso desberdina da itsasoaren ondoan bititzea edo itsasoa etxe bezala izatea. Gogoan dut amaren begietan nabari nezakeen kezka. Bere hatz finekin hileak nahasten zizkidan hain gogoko nuen makailau azken aldiz dastatzen nuen bitartean. Agurraren zaporea nabari nezakeen ahokada bakoitzean, baita amaren laztan bakoitzean ere. Banekien beldur zela; hala ere, ezin nezakeen esan zerek sortzen zion beldur hori. Ni itsasoaren biktima bihurtzeak? Bakardadeak? Gehiago bueltatuko ez nintzen susmoa nabaritzeak? Momentu hauetan hautaketa bat egitekotan azken galderak beldurtzen zuela uste dut. Hala ere, ezin dezaket ziurtasun osoz esan, ez bainintzen bueltatu. Ama bizirik zela ez bahintzat. Eta orain damu naiz. Damu naiz amari eman nion azken muxu hark ez baitzuen azkena izan behar. Kaian ni agurtzen zela eskaini zidan begiradak ez baitzuen azkena izan behar. Agurtu aurretik jan nuen makailau hark ez baitzuen azkena izan behar, ezta bere hatzek ene hilea nahasten zuten bitartean senti nezakeen maitasunak.

Hala ere, berandu da damutzeko. Beranduegi ene malkoak itsasoan isurtzeko edota amari barkamena eskatzeko. Horregatik igarotzen ditut orduak herriko kaian eseririk itsasoari begira. Berak lapurtu zizkidan azken aldi guzti horiek errekuaperatu ahal izango ditudan itxaropenarekin. Amaren barkamena sentitu ahal izateko esperantzaz. Merezi dudana zigorra betetzeko beharrez. Hainbeste urtean ene lagun izan zen horregan lasaitasuna berriz aurkituko dudana ilusioz.

Zure brisak gomutarazten dizkidan oroitzapenetan murgildurik ematen ditut orduak herriko kaian eserita. Zure zurrumurrua entzun bitartean inoiz ahaztea ezinezkoak egingo zaizkidan momentuak gogoratuz. Behinola ene lagunik maiteena izan zinen horrek barrenean sortarazten didazun zurrunbiloa ezin lasaituz. Zure beldur zen amaren begiak kaian aurkitzeak eman ohi zidan sentsazioak ene bihotza apur bat gehiago tristatuz. Egunetik egunera nostalgiaren labirintoan harrapatua den preso bilakatuz, zuk ene zeldako giltzak gero eta urrunago ezkutatzten dituzula jakin badakien preso.

Hala ere, ez naiz gehiago zure preso izango. Ez naiz zuk eskaintzen dizkizadun plazerren menpeko gehiago bihurtuko. Ez naiz zu bisitatzera sekula gehiago agertuko. Zaharra bainaiz eta heriotzak ene eskuak goxoki hartu eta berarekin eramango nauen momentua hurbil baitago. Honek ez du esan nahi maite ez zaitudanik. Aske izan nahi dut hiltzerako momentuan. Besterik ez. Eta aske izango naizela senti dezaket; izan ere, edozer gertatuta ere badakit zu beti hortxe egongo zarela.

Ainhoa Gojenola

IHESLARI SENAZ KORRIKA

Zenbatetan esan ote dizute zeure martxara joateko? Zenbatetan entzun ote duzu ingurukoen erritmoaren gatibu ez bihurtzeko? Zenbatetan, hasi eta soilik helmuga erdiesteko? Azken iristearen beldur ez izateko? Dirudienez, gaingitu duzue erlojuaz ez ardura-zeko garaia, taupaden erritmo geldoaz gozatzeko sasoa. Handitu da fisikan denborarekiko espazioa, areagotu da azalerarekiko indarra, jada zeuen gain da Londres bezalako hirietako martxa.



“Flying fish”
Alexander Calder, 1957.

*Zaintzen nindutela
“ur gaziaz goza”
zen,
independentziarekin
bihurtu zitzaidan iheslari
sen.*

Harritzekoa da etxetik urruntzeak dakarzkizun mina, tristura, aitaren etxearen defentsa, Arestiren ahotsa. Sinestezina da aldaketek dakarzkizuten hondamendia, buruhaustea; sinestezina den bezala gidaria eskuinean ikustea, autobusera ezkerretatik igotzea, bi peniko txanpona bi poundekoaren aldean bikoitza izatea. Ezinezkoa da ezinezkoa deritzozunari posible itxura hartzea, argi gorriari begira ez aspertzea, eta gero zebra bidea bi segundotan gurutzatzea.

*Txikienak irentsi
erregelak hautsi.
Baina banabil suntsitzaille
supergizakiagandik
ihesi,
aldaketak ditut hesi.*

Dominoko piezetako bat izan behar zara metrora bidean, bidaian, lurpetik itzultzean. Inurrien antzera zoaz ilaran, milioika ilehorik aurreratzen zaituzten bitartean, Londresko jendetzaren zurrumbilotik ihes egin nahian, Tamesis bera bailitzan. Lehen inurriak behar bezala lan egiten ez badu, bigarrenak aurreratuko ote? Ez, irudi hori inoiz ikusteko zortekoak izan al zarete?

*Printzesen filmetan
dorretik jaistean
ez da apurtzen izara.
Atlantikoko martxan
azken hatsa ere usaintzean
ez da apurtuko taldea, geure izara.*

Kaleko atea gurutzatu, giltzatu. Autobusera ingelesen inertziar sartu. Azeleratu. Abiadura aldaketagatik lekua hartu. Ia-ia erori zarela onartu. Lasaitu. Supituki izutu. Zuzen. Ezkerrera. Zuzen. Eskuinera. Balazta! Argiak! Klaxona! Buila! Barearen ostean ekaitza ez dator ba? Hara! Iritsi zara klasera, lanera, metara. Baina ez ahaztu etxera itzuli beharko zarela, eta biharko kontua ere badela. Gauaren atzetik eguna datorrela. Eguna gauak jarraitzen duela. Uste duzu infernu horri eusteko gai zarela?

*Etxean eskua sartuz
milioika gutariko egiten dituzte
beren.
Arriskuak nonahi
Eta norbera jakinaren gainean.
Otoitza.*

Ez da ukatu behar balitekeela ohitura kontuaz hitz egiten aritea. Hala ere, astebetean ezinezkoa da atleta britainiarren erritmora egokitzea, baina bai lehen inurri geldoaren lekua hartu eta lasterketari ekitea. Gogoratu kostata lortzen duzunak zapora gozoagoa duela, lehoiak zooan pozik buka dezakeela, pauso bakoitzean abiadura handiagoa daroazunean ingurukoen erritmoarekin gustura sentituko zarela, sufrimenduak plazera dakarrela. Londresko karrketan irauteko modu bakarra korrika egitea duzula.

*Iheslari senaz
supergizakiagandik ihesi
izarari tinko
otoitzean.
Atlantikoan irauteko asmoz
euskarakakailaoa naiz korrikan.*

Olatz Martiartu